

“MIMODRAMAK ETA IKONOAK”eko FIGURAK

Juan Mari Lekuona

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 40. Tomo XXXVII. N.º 1 (1992), p. 193-197
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Ez dakit zer burubide darabilan. "Ez dakit nun dedan juizioa" esango zukeen Bilintzek. Juan Mari Lekuonaren sailetan ez naiz, ba, sartu! Tinurik hartuko ote diet haren mimoei, haren dramei eta haren ikonoei? Merezi ote du haren izena narda dezadan? Zilegi ote zait? Baina bururik gabeko nire lastaiaren su xuri eta ketsua gorabehera, Juan Mariren izateak lehenean iraungo du eta horrek animatu nau aurrera egitera. Barka biezait. Eta gogoan izan aipu honen pretentsioa ez dela, niretzat ezinezko lana, liburuaren eta liburuko poesiaren barrunbe guztiak iraultzea. Irauli, agian, bai, baina sokor bihurtuko zait soro osoa; ez Juan Mariren erruz, nik area erabiltzen jakingo ez dudalako baino. Berriz esanda ere, barka biezait!

Baina nik gauza zalei erraz aurkitzen diet irtenbidea. Kritiko zorrotz eta jakitun bezala ez baino irakurle sinple eta xume baten modura hurbilduko natzaio obrari. Hori bai, sinplezia horren bamean gogor eragingo diet buruko errotarriei, eta ehia horretan, nekez bederen, ehotako irina izango duzue opilgai, labesuaren zai. Beroarena kendu beharrik ez du izango, ez baitut merezi beste goroiapatuko. Laka, berriz, neuk kendu beharrean berak kitoan uzten baldin badit, konforme naiz, baimenik gabe inoren sailetan bildutako laboreagatik laka eskatzea ez baita oso arrazoizkoa.

MIMODRAMAK ETA IKONOAK ez da obra luzea. Bi atal nagusi ditu: GRUTESKOAK eta ADAR-BIRAN. Atal nagusi hauek hiruna azpilataletan banatzen dira: IZUEN GENESIA, FANTASIA BELTZAK ETA ATABISMOAK osatzen dute bata. Eta KALENDERA, ENBLEMATIKA eta ITZALEN GALERIA-k bobordiltzen dute bigarrena. Seia da zenbaki magikoa, dirudienez, Juan Marientzat, eta azpiatal bakoitza sei poemez hornitua dator. EREIN argitatearen eskutik plazaratu da liburua. Ehun eta hiru orrialde ditu. Diseinua eta irudiak Antton Olariagarenak dira. Bere garaian Euskal Gobernuak Kultura eta Turismo departamenduaren diru laguntza jaso ezezik, 1991ko EUSKADI literatur saria ere berarentzat izan zen.

Errima libreko poema ritmikoak dira guztiak. Bost estrofatakoak gehienak; laukoak ere ez dira gutxi. Hirukoak eta seikoak ere badira batzu; baita bakarren bat bikoa ere. Estrofa guztiak ez dira berdinak; lauzpabots bertsolerrotan dabilta gehienak. Baina, monotonia hauste aldera edo, inoiz ez edo oso banakatan azaltzen dira poema beraren bamean bertsolero berdinez osaturiko estrofak. Bertsolero bakoitzeko silaba kontuari bagagozkio, errima bezalaxe, guztiz librea dutela esan behar. Ahozko literaturan hain aditua eta jakintuna den gure Juan Marik guztiz beste muturrera jo du oraingoan. Oraingo poema hauek ez dute bertsolarien bertsuekin zer ikusirik, ez inolako antzik.

Ezta orain arte bere liburuetan: *MINDURA GAUR*, *MUGA BEROAK* eta *ILARGIAREN ES-KOLA*en publitaturiko guztiarekin ere. Herri poesia esan litekeen horietakoa da lehengoa; oraingo ez, inolaz ere. Haiek kantatzeko eginak dirudite. Herri kanta bihurtzeko modukoak dira, oraingoak ez. Hauek ere entzuteko poemak dira, musikalak dira, baina musika serioa, *REGORIANO*aren antzekoa dute beren baitan. Hauek, ikusteko poemak ere badira ordea. Irudia

da nagusi, soinuarekin batera. Antropologikoak dira. Filosofikoak? Baita ere. Gizonaren historia modu bitxian kontaturik. Kosmobisioa.

Historia antropologikoa kontaktzen da bere gordintasunik gordinenean: gizonaren trajedia, noraeza, izuikara, borroka eta fatalitatea. Koben sorreratik, izarren kontu ematetik pasa eta kultur sustraiak jorratzeraino jotzen du. Denbora ere kontuan hartzen du nolabait. *KAENDE-RA* izeneko poema saila horixe da. Oteiza eta Barandiaran aipatzen dira bereziki. Kontrastea da nagusi: argia eta iluna, zarata eta musika fina edota isiltasuna, irudi lortuak eta irudi desitxuratuarak... baina denen artean giro trajiko eta dramatiko ematen diote.

Hona hemen soinu eta hotsen inguruan bildutakoa: “urruneko dundunean hots-joa, tan-ka, aspildiko dardarak, pareta zaharren oihartzun, oihu atabiko, zintzur salbaiatik jalditako garrasiak, hasperenak, orroak, harkaitz orpoen kraketako, infernuko ortotsa, otsoen auriak, ilargipean uluka, letagin hertsien turuta, lanturu baizik ez diren ibarrondoak, tantaen ujujua, basoko garrasi, oihuen mamu iletsua, narraztien ziztu semitonalaren ezkatezkoa isatsa, margoen kaperako isiltasunean, garrai itoen kriptarako bidea, leizetik oihuka, egunaren serafinak, ohartzera iturriko musikak, xori aztiaren kontrapas, sehaska kantuen urutimina, melisma alaitsu, orfeoi hotsa, haren khantorea zen iruleen eresi, kantu eta ele, erritmo iktusek”.

Irudiak, arkitektura, ikonoak, pintura... eta bidez sortzen dituen sentsaio askoren oinarriak: “ganbarra ilunek, pinoteka isilek, kare labarrietan, ikatzez ea okrez, berunezko piztiak, harri estanpatuetan, kolore gordinak, urek zuten aginte, haizuloek amultsuki atondutako sabela, amildegiak usmatzearen laberintoak, harrizko pasadizoan atzazalak, lurpeko gaztelu lehertu, jatorrizko estigmak irakur zitezkeen, harriz eta suz markatuak, sugearen gerria, besahuntzaren adarkera, estalaktiten brodadura kordelatuetan, kobazuloaren egitura: heren-sugearena, hartzen etzangua, kobetako sala doratua, leiho more, fabordon telurikoa, haizearen eskola akromatikoa, suzko gurpiletan, purpurazko kaliza...”

Argi-ilunen kontrastea: “gauaren begininietan, tximistaren leherketa, itzali, hilbiko gar bizia, eguzki errainurik ez, eguzkiak ber orritsa eskaintzen zien, kobako hormaitsuak, ehiztariek zuzi argitan, gaueko loreak, eguzkigabeko oiharra, piztitzarraren itzala, ilargi berri, gau iluna azkenean egun argi, ilunak sareetan bahiturik, egunsentiko zeremonian argian piztean, azkenean tximistak sutu zuen, argizaolan antropomorfoa diztiratsu, argimihia zut, xuriagotzen hasia, argiaren paleta, gauaren hegala, argi oihuak beherantz”.

Honako hauek odola, borroka, oinazea, fatalitatea eta etspenarekin erlazionatzen ditut nik: “zaurien santutegia, ebatondoak, odola zorne duten narraztien hortza, ebatondoak, haize itoaren azidoz etsipenaren zaporea itsatsi, etena dagitela odol zaragien larru josturek, gogorena juen basoko haztura, oihanean ez zen ederrago gizakien lehia, negar tanta gorriak, odola, ekaitzak gugduketak, desesperazio koloretako jantzi traketsak, hasi zen beldurraren metaformosia, fantasia beltzak, gezi zorrotzez armaturiko aztoreak, munstro odolzaleak, beldurraren aldarean, herio letaginez, ezinak etsipendua, sierpe ezketaduna, piztitzarraren itzalak, herio aurreko trantzeak, ezinaren antzizarrez perlesiak joa, herio katarata, odolbilduzko mehatz bihurtua, erromes odolduak, urkamendia, odol eta urre, trajedia hitsak...”

Sinboloak edo metaforak ere erruz darabiltza: “amets gaiztoen aingura erdoilduak, beldurraren esne ozpindua, alkitran irakina, zorigaitzen oroitarria, oihuen mamu iletsua, amets engainagarrien zaldi zuriak, uso urdinen askatasun hegada, alehunka ispilu hautsiak arimaren zirrara atabikoak isladatuz, ohartzera iturriko musikak, izarrak gona urdinskaren azpitik, erotutako zaldien konstelazioa, beleek ostu begietako kristala, perzepzioak elurrez, eta erratza biltzen ari amasek utzitako auka, enbor goritik jaino zen pertxenta, ortziari mozturiko zilbor hestea”.

Sail hau bukatzeko bere azken poema ezarriko dudu:

Sei aurpegiko, sei koloreko. Seiak
nahastuz, seiak txandakatuz. Hala da
giza ulerkuntzen kubo magikoa;
sei hegaleko ainguruaren hosmobisioa.

Gehiago ere hitzegin daiteke. Adibidez, adjetibazioaz: izenlegun eta adjetiboen erabilpen konszienteaz eta sintaxia ordenatzeko moduez. Baita aditzaren elipsiaz edota atributo ugarietz ere baina bego aipamen soiletan.

Azkenik, hauxe esan nahiko nuke: goi mailako eta hizkuntza teknikoak darabil guztiz Juan Marik. Apur bat sakondu nahi duenari ez zaio hiztegitxo bat aldean gaizki etorriko, honako hauek antzeko hitz asko aurkituko baitu: "profil, lingirda, galtzar, lapastu, auria, kerantza, erubean, bedatsa, orrits, biska, kerua, xaramela, gidailak, xerka, bogada, iguriki, tupiki, umagin, melismaerlantz, ictusa, zaldabaia, arpegio, gerrontze, oturantza, matxino, urmalea, hierofania, izkilua, baldakinoa, hierogamia, treila, almenadia, kalitu, oilarite, eta abar luzea.

Rufino Iraola Garmendia